



2002/07/23ko prentsa-oharra

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA (ETHI)**2002ko ekaina**

BIDAIARIEN SARRERAK ETA GAUALDIAK %7 IGO DIRA 2002KO EKAINEAN

Bidaiarien sarrerek zein gualdiek igoerak izan dituzte hiru herrialde historikoetan

2002ko ekainean, 136.231 bidaiari-sarrera errolatu dira Euskal AEko hotel-establezimenduetan, aurreko urteko hil berean baino ia 10.000 sarrera gehiago, hau da, %7ren gehikuntza, Eustatek eskaintzen dituen datuen arabera. Bidaiarien sarrerek igo egin dira hiru herrialdeetan, modu desberdinean bada ere: %11 hazi dira Araban, eta %6 Bizkaian eta Gipuzkoan.

Estatutik datozen bidaiarien sarrerek %10 igo dira, atzerriko bidaiarien kopuruak lortu duen gehikuntzaren gainetik (%2). Estatutik datozen bidaiariak igo egin dira hiru herrialdeetan: Araban %8, %15 Bizkaian eta %5 Gipuzkoan; atzerriko bidaiariak; aldiz, %18 igo dira Araban eta %8 Gipuzkoan; Bizkaian, berriz, %10 jaitsi dira.

Estatutik datozen bidaiarien artean, igo egin dira ia autonomia-erkidego guztietatik datozenak, batez ere Madrildik eta Valentziako Erkidegotik etorriak, bai eta Euskal AEtik beretik datozenak ere. Atzerriko bidaiarien artean, aipatzekoa da Frantziatik eta Erresuma Batutik datozen bisitariek izan duten gehikuntza, bai eta AEB-Kanadatik eta Iberoamerikatik datozenen jaitsiera ere.

2002ko ekainean izandako gualdiak 255.237ra iritsi dira, hau da, aurreko urteko aldi berean baino ia 18.000 gehiago, hau da, %7 igo dira ehuneko-balioetan. Egindako gualdien kopuruak %11ren hazkundera izan ditu Bizkaian, eta %5ena Araban eta Gipuzkoan.

Euskal AEko hoteletan ostatu hartu duten bidaiarien batez besteko egonaldiak egonkor iraun du 2002ko ekainean, eta indize hori bidaiariko 1,87 egunena da. Batez besteko egonaldia %5 hazi da Bizkaian, eta %5 eta %1 jaitsi da Araban eta Gipuzkoan, hurrenez hurren.

Plazako betetze-maila %2 igo Euskal AE osoan, Bizkaian izan den %5en eta Araban izan den %2ren gehikuntzaren ondorioz; Gipuzkoan, aldiz, %1 jaitsi da. Gelako betetze-maila, berriz, %2 igo Euskal AEn, Arabako eta Bizkaiko igoerarengatik (%7 eta %3, hurrenez hurren); Gipuzkoan, aldiz, gelako betetze-maila %2 jaitsi 2002ko ekainean, aurreko urteko hil beraren aldean.

Nekazalturismoa: gualdiak (%26) eta bidaiarien sarrerak (%12) igo egin dira

Euskal AEko nekazalturismoko establezimenduetan, 6.463 bidaiari-sarrera zenbatu dira 2002ko ekainean, aurreko urtean baino %12 gehiago: %25 hazi dira Gipuzkoan, %5 Bizkaian, eta %2 jaitsi dira Araban.

Egindako gualdiak 14.982 izan dira, hau da, 2001eko ekainean baino %26 gehiago, eta hori Euskal AEko hiru herrialdeetan gertatu da: Gipuzkoa (%30), Araba (%26) eta Bizkaia (%22).

Batez besteko egonaldia %13 hazi da Euskal AE osoan, eta hiru herrialdeetan hazi da: Araban (%29), Bizkaian (%16) eta Gipuzkoan (%4), aurreko urteko hil beraren aldean.

Argibide gehiagorako, deitu hona:

 Eustat	Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz Tel:+34 945 01 75 00 Fax:+34 945 01 75 01 E-mail: eustat@eustat.es Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Tel:+34-945-01 75 06 Fax:+34-945-01 75 01 Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es
---	--

1. taula: hileko emaitzak

	EUSKAL AE					ARABA/ALAVA					BIZKAIA					GIPUZKOA				
	2002/06	%	2001/06	%	D%	2002/06	%	2001/06	%	D%	2002/06	%	2001/06	%	D%	2002/06	%	2001/06	%	D%
HOTEL ESTABLEZIMENDUAK																				
BIDAIARIEN SARRERA	136.231	100	127.400	100	7	25.055	100	22.640	100	11	52.489	100	49.498	100	6	58.687	100	55.262	100	6
Estatukoak	90.210	66	82.346	65	10	17.855	71	16.522	73	8	36.645	70	31.849	64	15	35.710	61	33.975	61	5
Atzerrikoak	46.021	34	45.054	35	2	7.200	29	6.118	27	18	15.844	30	17.649	36	-10	22.977	39	21.287	39	8
GAUALDIAK	255.237	100	237.624	100	7	41.996	100	39.884	100	5	101.134	100	91.220	100	11	112.107	100	106.520	100	5
Estatukoak	167.331	66	150.974	64	11	30.694	73	29.330	74	5	68.006	67	55.116	60	23	68.631	61	66.528	62	3
Atzerrikoak	87.906	34	86.650	36	1	11.302	27	10.554	26	7	33.128	33	36.104	40	-8	43.476	39	39.992	38	9
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	1,87		1,87		0	1,68		1,76		-5	1,93		1,84		5	1,91		1,93		-1
PLAZAKO BETETZE MAILA	48,91		47,90		2	51,16		50,17		2	47,97		45,47		5	48,96		49,31		-1
NEKAZALTURISMOA																				
BIDAIARIEN SARRERA	6.463	100	5.771	100	12	1.090	100	1.107	100	-2	2.417	100	2.295	100	5	2.956	100	2.369	100	25
Estatukoak	5.675	88	5.167	90	10	986	90	1.055	95	-7	2.155	89	2.076	90	4	2.534	86	2.036	86	24
Atzerrikoak	788	12	604	10	30	104	10	52	5	100	262	11	219	10	20	422	14	333	14	27
GAUALDIAK	14.982	100	11.858	100	26	2.645	100	2.093	100	26	5.887	100	4.812	100	22	6.450	100	4.953	100	30
Estatukoak	12.492	83	10.022	85	25	1.912	72	1.971	94	-3	4.883	83	4.027	84	21	5.697	88	4.024	81	42
Atzerrikoak	2.490	17	1.836	15	36	733	28	122	6	501	1.004	17	785	16	28	753	12	929	19	-19
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	2,32		2,05		13	2,43		1,89		29	2,44		2,10		16	2,18		2,09		4
PLAZAKO BETETZE MAILA	23,66		20,86		13	22,90		19,27		19	29,16		27,99		4	20,42		17,20		19

Iturria: EUSTAT